



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

19/01/24

Bizkaiko Batzar Nagusiek ez dabe onetsi 2013ko ekitaldiko Lurraldeko Kontu Orokorra fiskalizetako EH Bilduk egin dauen eskaria

Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak ez dau onetsi gaur goizean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideren bat Batzordera etorteko EH Bilduk egindako agerraldi eskaria, erakunde horrek 2013ko ekitaldiari jagokon Bizkaiko Lurralde Historikoko Kontu Orokorren ganean argitaratu dauen Fiskalizazio Txostenaren ganeko azalpenak emon daizan. Eskariak aldeko sei boto izan ditu (proposamena aurkeztu dauen taldearena, Podemos Bizkaiaarena eta Talde Popularrarena) eta kontrako bederatzi (Foru Gobernua eusten daben taldeena, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak), Talde Mistoko ordezkari bakarra ez dalako bertan egon.

Arantza Urkaregi EH Bilduko bozeroaleak, urtarrilean eta urrian Bizkaiko Batzar Nagusietako Mahaiari egindako bi eskaritan oinarritu dau oraingo eskaria. Eskari horreetan, 2012. eta 2013. ekitaldietako Foru erakundearen aurrekontuen gauzatzearen ganeko txostena eskatzen jakon Herri Kontuen Euskal Epaitegiari. Urkaregik zehaztu dauenez, eskatutako informazioa Foru Aldundiko webgunean dago argitaratuta, baina ez jentearen esku. Ekain Rico Euskal Sozialistak taldeko batzordekideak adierazo dauenez, bere taldearen kontrako botoa, aurreko legealdiko dokumentua dalako izan da, une honetan ez dagolako tramitazioan, eta Unai Lerma Euzko Abertzaleak taldeko kideak, “ez deusagu eskariari esanahirik ikusten, eta uste dogu ez dala horretarako une egokia, 2013ko kontuak barriro aztertzeak zelanbaiteko nahasketea eragingo leukelako”, esan dau.

Ogasun eta Finantzetako foru diputatuaren agerraldia

Bozketa horrez gain, gaur goizean egin dan Batzordeak Jose M^a Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako Foru Diputatuak Ekonomia eta Ogasuneko batzordean egin dauen agerraldia jaso dau. Bilboko Batzar Nagusietako egoitzara etorri da Ondasun Higiezinaren Zergea (OHZ) aldatu behar dauen Foru Arau Proiektua azaltzeko eta EH Bilduk 2016ko foru aurrekontuaren gauzatzearen ganean egindako eskariari erantzuteko.

Lehenengo puntuari jagokonez, Iruarrizagak azaldu dau OHZ 2016an aldatu zala, 25 urte baino gehiagoko indarraldiaren ostean. Hori dala eta, katastroa eguneratu behar izan zan, eta horrek uri eta landa inguruetako 1,7 milioi jabetzatan izan dau eragina. Eginkizun konplexu hori bukatu ostean, orain EBOH-BICE izenekoen (Ezaugarri Bereziko Ondasun Higiezinak, portu komertzialak, aireportuak edo energia sortzeko zentralak, besteak beste) balio katala zehazteko ordua da. Iruarrizagak zehaztu dauenez, Udal bakotxak 2019an onetsiko dau kasu bakotxean erabagiko dauen zerga tasea, Foru Aldundiak %2,2aren eta %0,8aren artean ezarriko dauen tartearen barruan. Ogasun Saileko arduradunak jakinarazo dauenez, okupau barik dagozan etxebizitza erabilerako ondasun higiezinaren gainkargan salbuespena sartu da gizarte izaerako etxebizitza publikoko planetara zuzentzen diranetan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

EH Bilduk egin dauen agerraldi eskariari jagokonez, Arantza Urkaregi bozeroaleak azaldu dauenez, bere taldearen eretxiz beharrezkoak dira Ogasun eta Finantzeta Foru Diputatuaren azalpenak, orain denpora gitxi, Herri Kontuen Euskal Epaitegiko ordezkari batek 2016ko ekitaldiari jagokon Bizkaiko Lurralde Historikoko Kontu Orokorraren ganean egin dauen agerraldiaren ostean.

José María Iruarrizagak, 2016ari jagokon foru aurrekontuaren magnitude ekonomiko nagusien laburpena egin dau, foru erakundeari jagokon kudeaketaren aurrekontuan gizarte izaerako gastuak daukan garrantzia azpimarratuz, izan be, Lurraldeko Kontu Orokorraren %80, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren aurrekontuari egiten jakon ekarpenera, Udalen finantzaketara, Estaduari pagetan jakon kupoan Bizkaiari jagokon partera eta Batzar Nagusien euren finantzaketara bideratzen da.

Batzarretako taldeei jagokonez, Arantza Urkaregik, EH Bilduren izenean, bere eretxiz, Bizkaiari jagokozan Bizkaiko kontuak argi dagozala azaldu dau, baina esan dau harrigarria dala aurrekontuaren parte bat gauzatu barik geratu izana, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Kontuen Epaitegiaren artean azkenengo urteetan emon diran desbardintasunak azpimarratu ditu. Talde Popularreko Eduardo Andrések, bere aldetik, aurrekontuaren parte bat bete ez izana Sail bakoitzak erantzun beharreko kontua dala esan dau, eta epaitegiak adierazo dituan alegazioak eta desadostasunak daborduko “klasikoak” dirala esan dau. Podemos Bizkaia taldeko Eneritz De Madariagak, lurraldeko kirol erakundeek diru-laguntzak justifiketako dokumentaziorik aurkeztu ez izana azpimarratu dau, eta baita Foru Aldundiko behargin batzuei erretiretako emon jakezan primak be.

Ekain Rico Euskal Sozialistak taldeko bozeroaleak azpimarratu dauenez, Kontuen Epaitegiko txostenak, Aldundiaren kontuek legeari eta ekonomia eta finantza egokitasunari jagokozan estandar guztiak beteten dituela erakusten dau. Eta Unai Lerma Euzko Abertzaleak taldeko bozeroaleak, 2016koa, epaitegi fiskalizatzailearen ezelango salbuespenik jaso ez dauen Bizkaiko Lurralde Historikoko lehenengo Kontu Orokorra izan dala azpimarratu dau, eta aurrekontu egonkortasun egoera eta ekonomia eta finantza jasagarritasuna goraiatu ditu. Bere berbaldian, Ogasuneko Foru Diputatuak barriro esan dau Epaitegiaren alegazioak kontabilitadeko erespidearen ganeko aldeak baino ez dirala, eta 2016ko foru kontuen ganeko txostena “gutziz garbia eta gardena” dala esan dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

24/01/2019

Las Juntas Generales de Bizkaia rechazan una petición de EH Bildu para fiscalizar la Cuenta General del Territorio correspondiente al ejercicio 2013

La Comisión de Economía y Hacienda de las Juntas Generales de Bizkaia ha rechazado esta mañana una solicitud de comparecencia de un representante del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas formulada por EH Bildu, al objeto de explicar el Informe de Fiscalización que emitió dicho tribunal de la Cuenta General del Territorio Histórico de Bizkaia correspondiente al ejercicio 2013. La petición ha contado con seis votos a favor (los del grupo proponente junto a los de Podemos Bizkaia y del Grupo Popular) y nueve en contra (los de los grupos que sustentan el Gobierno foral, Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos), en ausencia del único representante del Grupo Mixto.

La portavoz de EH Bildu, Arantza Urkaregi, ha justificado la solicitud en dos solicitudes formuladas por ella misma a la Mesa de las Juntas Generales de Bizkaia, en los meses de enero y octubre, para requerir al Tribunal de Cuentas el informe sobre la ejecución presupuestaria de la institución foral en los ejercicios 2012 y 2013. Urkaregi ha precisado que la información solicitada está ya publicada en la página web de la Diputación Foral, pero sin acceso público a la misma. Por parte del portavoz de Socialistas Vascos, Ekain Rico, el voto negativo se ha justificado con el argumento de que se trata de un documento correspondiente a la legislatura anterior que no está actualmente en tramitación, mientras que el representante de Nacionalistas Vascos Unai Lerma ha señalado que “no le vemos sentido a la solicitud y creemos que no es el momento oportuno, porque volver a analizar las cuentas de 2013 contribuiría a crear cierta confusión”.

Comparecencia del diputado foral de Hacienda y Finanzas

Además de esta votación, la Comisión celebrada esta mañana ha contado con la presencia del Diputado Foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, que ha acudido a la sede de las Juntas Generales en Bilbao para explicar el Proyecto de Norma Foral que va a modificar el Impuesto de Bienes Inmuebles (IBI), y para responder a una solicitud de EH Bildu sobre la ejecución del presupuesto foral en el ejercicio 2016.

Respecto al primer punto, Iruarrizaga ha explicado que el IBI fue modificado en 2016 tras más de 25 años de vigencia, lo que obligó a actualizar el catastro, que en Bizkaia ha afectado a 1,7 millones de propiedades urbanas y rústicas. Una vez concluida esta compleja tarea, es ahora el turno de determinar el valor catastral de los llamados BICE (Bienes Inmuebles de Características Especiales, que incluyen elementos como puertos comerciales, aeropuertos o centrales de generación de energía, entre otros). Iruarrizaga ha precisado que cada ayuntamiento aprobará en 2019 el tipo de gravamen que decida en cada caso, con una horquilla fijada por la Diputación Foral de entre un 2,2% y un 0,8%. El responsable del Departamento de Hacienda ha informado asimismo de que se ha introducido una exención en el recargo sobre bienes inmuebles de uso residencial desocupados para aquellos que se destinen a planes de vivienda pública de carácter social.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En cuanto a la solicitud de comparecencia formulada por EH Bildu, su portavoz Arantza Urkaregi ha explicado que su grupo considera necesarias las explicaciones del Diputado Foral de Hacienda y Finanzas tras la reciente comparecencia ante la misma Comisión de representantes del Tribunal Vasco de Cuentas en torno a la Cuenta General del Territorio Histórico de Bizkaia de 2016, y antes de que su aprobación definitiva sea sometida a la consideración del Pleno de las Juntas Generales de Bizkaia.

José María Iruarrizaga ha expuesto un somero resumen de las principales magnitudes Económicas del presupuesto foral correspondiente a 2016, destacando la relevancia del gasto de carácter social en la parte del presupuesto que corresponde a gestión propia del ente foral, dado que el 80% de la Cuenta General del Territorio corresponde a la aportación al presupuesto de la Comunidad Autónoma Vasca, a la financiación de los ayuntamientos, a la parte correspondiente a Bizkaia del cupo que se paga al Estado, y a la financiación de las propias Juntas Generales.

Por parte de los grupos junteros, Arantza Urkaregi en nombre de EH Bildu ha expuesto que a su juicio las cuentas de Bizkaia correspondientes a 2016 están claras, aunque ha calificado de sorprendente la no ejecución de una parte del presupuesto y ha incidido en las diferencias de interpretación entre la Diputación Foral de Bizkaia y el Tribunal de Cuentas que se han venido repitiendo en los últimos años. Por el Grupo Popular, Eduardo Andrés ha estimado que la no ejecución de parte del presupuesto deberá ser contestada por cada uno de los Departamentos afectados, y ha calificado como “clásicos” las alegaciones y discrepancias formuladas por el tribunal. Eneritz De Madariaga, en nombre de Podemos Bizkaia, ha puesto el acento en la ausencia de documentación justificativa de subvenciones por parte de entidades deportivas del territorio, así como en las primas de jubilación para una parte del personal de la Diputación Foral.

Ekain Rico, portavoz de Socialistas Vascos, ha destacado que el informe del Tribunal de Cuentas ratifica que las cuentas de la Diputación cumplen con todos los estándares de legalidad y de idoneidad económico-financiera. El portavoz de Nacionalistas Vascos, Unai Lerma, ha subrayado que la de 2016 ha sido la primera Cuenta General del Territorio Histórico de Bizkaia que no ha contado con ninguna salvedad por parte del tribunal fiscalizador, ha alabado la situación de estabilidad presupuestaria y la sostenibilidad económico-financiera del ente foral. En su última intervención, el Diputado Foral de Hacienda ha insistido en que las alegaciones del Tribunal corresponden a meras diferencias de criterio contable, y ha calificado el informe sobre las cuentas forales de 2016 como “absolutamente limpias y transparentes”.